



221. zenbakia

IRAILA 2022

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria



“Tar, tar, tar”
“Mar, mar, mar”
Denak gerraren aurka dira.
Eliza, agintariak,
gizakia oro har.
Horrela diote behintzat.

“Tar, tar, tar”
“Mar, mar, mar”
Ez gaitezen engaina...
gerra etxean hasten baita.

Joxe Jabier Elizalde



ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan eta Patxi Irurzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.700 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Pestak itzuli dira. Argazkian erraldoiak Larraintzarren.

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira irailaren 5an bidalia

AURKIBIDEA

04

Gaurko gaia. *José Joaquín Erbiti*

07

Albisteak

12

Kronika. *Denok bat*

13

Erreportajea. *Arco Iris*



18

Elkarrizketa. *Ainara Urritza*

19

Irratia. *Egun Ero bueltan*

20

Aspaldiko kontuak. *Esan omen zion behin (5)*

22

Ekimenak. *Euskarabentura*



24

Ardo Frexkoa. *Gaizki ari gara*

26

Zer irakurri. *Altxortxikiak*

28

Kirola. *Beñat Senosiain*

29

Jaiotzak



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Beatoa izendatuko dute laster

Etxalekuko Zapatiñeneko nagusi beharra, Miguel Francisco Erbiti Erbiti, 1881eko abuztuaren 30ean ezkondu zen Muskitzen, Artoneko alaba zen Micaela Intsausti Nuin-ekin. Hamabi ume izan zituzten, bost mutiko eta zazpi neskato, eta horietatik bi neskatxetan hil zitzaizkien, 14 eta 18 urtetan. Azken aurrena, Jose Joaquin, 1902ko azaroaren 15ean jaioa, barnekoia eta oso elizkoia. Honen izaeran zerbait ikustekorik izan ote zuen herriko apezak? Osaba ttikia zuen Pedro Juan Erbitik? Ez dirudi, bost urte bete aitzintxoan hil baitzitzaion. Eragina handiagoa izanzen zuen bere baitan amak, erlijio biziko familia batekoa baitzen Artone-tarra. Dena dela, ama ere oso gazterik galdu zuen Jose Joaquinek, zortzi urte bete gabe zenean. Bai, ama, gazterik hil zitzaion, 50 urtetan.

Nekazal etxeko lanetan buru belarri

Gaztetxorik hasi zen etxeko lanetan, orduan izan ohi zen bezala. Artzaina izan zen eta mendian ordu asko pasatzen omen zituen, gogoetatzeko asti aski zuelarik.

Apez izan nahi eta aurrera egiteko aukerarik sortzen ez

Haurretan apez izateko nahia agertzen omen zuen, baina aita ezezkoan omen zegoen.

▼ Jose Joaquin (Pascual) Erbiti, 33 urte zituen hil zutenean eta 8 urte besterik ez zituen fraide sartu zela.



Hamasei urte zituenean edo, aitak baimena eman omen zion, baina orduan berak atzera, eskolan ikasitakoa gutxi ote zuen eta, horrela, etxean segitzea erabaki zuen.

Ondoren soldadu garaia etorri eta, beharrik, kupoz kanpo gelditu zen! Ez zuen Afrikara joan behar izan, nahiz hiru hilabeteko instrukzioa egin behar izan lruñean.

Herriko errepidea, 1925. urtean egin zenean bertan ari ziren langileren batzuk biraoka aritzeko ohitura eta hala esaten omen zuen:

Jainkoaren izen santue hola ibiltzia ere!

Etxalekun dantza lotua sartu behar zela eta konforme ez. Bera han agertu omen zen beste batzuekin batean, txistulari eta atabala berekin zekarzkitela.

Horrela, mutil heldua, 24 urtetan, fraide sartzeko desioak bultzatuta Loiolara joan zen gogo jardunak egitera 1926an, baina oraingoan ere duda-muda franko eta etxean gelditu zen eman beharreko pausua eman gabe.

Ehizarako ere zaletasun ikaragarria omen zuen eta behin hala etorriko omen zitzaion gogora:

Etorriko da egunen bat uso banda uso banda gainean, baina ni orduan hilobian egonen naiz eta zertarako balioko dit gozatutakoak? Deusetarako ez!

Eta horrelako gogoetekin, berriz ere berotu eta urte bat besterik ez bazuen ere Loiolatik pasatu zela, hara non joaten den beste gogo jardun batzuk egitera!

Eta oraingoan bai, erabakia harturik, hara non esaten dion bere anaia zaharrenari aita gaixorik zuelako:

-Fraide sartu behar diat, etxez etxe, atez ate, eskean ibili beharko badiat ere!

Jesuitetan sartzeko asmoz zen, baina herriko apezak, Laureano Agerreberek, esan zion erredentoristetan sartzeko. Eta, hala, bere aita hil berritan, lruñeko komentuan sartu zen, 1928ko maiatzaren 31an. 13 egun lehenago hil zitzaion aita, bronkitisak jota.



Fraide izateko ikasketak

Iruñeko komentuan 15 egun egin eta Burgosa igorri zuten, El Espinoko komentura. Lehen asteak oso gogorak egin zitzaizkion, Etxaleku zuen gogo bihotzean eta tristura sartu zitzaion.

Dena dela, egoerari buelta eman eta handik aurrera izugarri zoriontsu izan omen zen. Urtearen amaieran Madrila, Navas del Rey herrian zuten komentura, eta han abitua hartu eta profesioa egin zuen. Ordenan sartu eta Pascual hartu zuen izen berri bezala.

Bertan zen Matxiñena aita, bera bezala euskalduna, eta aitorletzat hartu zuen.

Nobiziatua bukatu eta 1930eko martxoaren 1ean Astorgara, Leona, bidali zuten, arrotza ez zitzaion lan batera hain zuzen, bertan zuten aziendaren kargu egin baitzuten.

Gisako lana, eta oso kontent jarri omen zen.

Astorgan lau urte egin zituen, lehenik behitegian eta gero sukaldean, sukaldariaren laguntzaile.

1934ko abenduaren 22an Madril hiriburura bidali zuten

Pascual (Jose Joaquin) Erbiti Intsaustiren heriotza: 1936ko abuztuaren 21a

Gerra hasi orduko arriskuan zirela ikusi, komentua utzi eta han eta hemen gorde ziren fraideak, ahal zuten tokian. Hala ere, Pascualek ia berehala etxetik aldatu behar izan zuen bere hurbiletik zebilzkiola jakin zuenean.

Madrilen Merkataritza Zuzenbideko irakasle baten etxean ortzi zen uztailaren 20an. Ordurako bertan zen bere kide Urruchi aita. Eta han egin zuten hilabete bat, meza eta errezoren artean, inora mugitu gabe.

Hala, abuztuaren 21ean, goizeko hamarretan miliziano andana etorri eta dena miatu eta balorea zuen guzia ebatsirik, bi

erredentoristak eta etxeko nagusia atxilo eraman zituzten. F.A.I.koak ziren miliziano horiek guziak.

Hirurak ere trankil atera omen ziren barneko beldurra agerian utzi gabe. Egun berean, gauean fusilatu zituzten, zantzu guzien arabera; eta 23an Andaluziako karretera bazterrean opatu zituzten bi erredentoristak eta Madrilgo kanposantuan ehortzi.

Gure artzain dohakabeak 33 urte besterik ez zituen hil zutenean. Ez zuen kulp txarrik Espainiako gerrako aferan!!!

1945. urtean lurpetik atera eta identifikatu zituzten; eta 1947. urtean hilobiratuak zeuden tokitik atera eta Erredentoristek kanposantu berean zuten Panteoian sartu zituzten. Eta geroztik bai Pascual Erbiti eta bai Jose Maria Urruchi elkarren ondoan daude.

Ezkerretik eskuinera:

Primitiva Erbiti Aldaregia, Zapatiñeneko iloba.

Jesusen Bihotz Sakratuaren Apostolutzako erlijiosoa. Valladoliden izaten da.

Ignacia Erbiti Ibarrola, Beuntzako Zurgifiñeneko etxekoandrea. Martiriaren iloba.

Agueda Erbiti Aldaregia, Zapatiñeneko iloba. Jaiotetxean bizi da.

Jose Angel Azpiroztz Erbiti, Beuntzako Zurgifiñeneko, Ignaciaren semea.

Filo Iribas Erbiti, Ibarrakoa, baina orain osaba-izebarekin bizi da Etxalekun.

Juaniko Erbiti Aldaregia, Zapatiñeneko nagusia.

Maria Paz Iribas Erbiti, Ibarrakoa. Etxalekun asko ibilitakoa, eta azken urte hauetan zer esanik ez.

Josefina Markalain Erbiti. Etxeberriko Gilleneko moja, martiriaren iloba, Maitasun Errukitsuko erlijiosoa. Bilbon izaten da.





▼ Zapatiñenea hego aldetik, etxe dotorea burdinazko balkoiarekin.



Martirienganako debozioa

Santuen bitartekaritza inportantea izan da mesede eta on denak erdiesteko. Elizaren santorala oso zabala da. Jendeak beti bilatu izan du santuren baten bitartekaritza hau edo bestea erdiesteko. Gerrakoan izan ziren martiriak ere inportantzia handia izan zuten jendearengan eta oraindik ere badute.

Zapatiñeko martiriak ere izan ditu deboto zenbait. Hala, Etxalekuko Juanita Azpirotzek, Jose Joaquinen adinkide zenak, asko maite zuen eta atxilotua zegoen baten alde eskatu omen zion eta oso-oso laster kanpoan omen zen.

Agueda Erbiti bere ilobak ere, oraindik ongi gogoan du nola izan zen bere ahizpa Bixentaren sendatzea:

"Goizaldia yun. Takikardiak ematen zittoken. Ta beittire joaten nioken

anaiari launtzia, ta handik joan ta etorri itten nioken, ikustiá. Joan eta bela etorriko nioken eta seittun:

-Ni banayen! -Bixentak.

Eta hillik geldittu yun.

Ta ne batten..., nik hille zela uste nin.

Eta e'nioken joan beittire're. Ta joan-ta, tio Joxen medalle ekarri, ta oiui itten nioken... Nik oiui ta oiui ta oiui. Ta buelta'ten burun hasi yun, eee! Eeee! Eeee! ...Ta bixtu!!!!

Gertaera honen ondoren Bixenta oso luze bizitu zen.

Mirari bat izan zen, edo mirari baten antza handia izan zuen.



Txurdan

Oharrak:

1.-Datu gehienak Don Miguel Azpirotz, Oskozko Matxineko apezak bilduak dira, Etxalekuko apezizanzen denboralaburrean (1942-1945)

2.-Dantza lotuaren kontu horretan, erdarazko bertsioan gaita soinu instrumentua ageria da. Hala ere txistua zelakoan nago ni. Txistuaz, gure ama zena asko oroitzen zen, baina gaita konturik ez diot inorientzun.

3.-F.A.I. : Federación Anarquista Ibérica. Errepublikara garaian eta batez ere gerrakoan oso-oso radikalak izan ziren eta errepresioan bortizkiaritu ziren.

Hiztegia

Barnekoia: espiritual, profundo

Elizkoia: erlijio zalea

Gogoetatu: reflexionar.

Astia: denbora libre.

Errepidea: karretera.

Zekarzkitela: Gurean horrela ibiltzen da. Batuan, zekartzatela.

Biraoa: maldizioa.

Gogo jardunak: Ejercicios Espirituales.

Hilobia: sepultura.

Aitorlea: konfesorea.

Hain zuzen: precisamente.

Gisakoa: apropiado.

Merkataritza Zuzenbidea: Derecho mercantil.

Atxilo: preso.

Ehortzi: lurperatu.

Dohakabea: desdichado.

Afera: asunto

Bitartekaritza: intercesión, mediación.

Erdietsi: lortu.

Santorala: Santuen izendegia

Hamabi erredentoristen beatifikazioa

Urriaren 22an, goizeko hamarretan beatifikatuko dituzte gerrakoan hil zituzten 12 erredentorista, goizeko hamarretan. Elizkizunak Madrilgo katedralean, Almudena deituan izanen dira.

Hamabi horien artean izanen da gure herritarra ere: Joxe Erbiti Intsausti edo Pascual Erbiti kongregazioan hartu zen izenarekin nahi bada.

Lokuzioak eta esateko moduak

-Izan ohi zen: solia ser

-Duda-muda

-Ez zuen kulpaa txarrik

-Ene baitan (Hemen Ene batten edo Ne batten)



Gure alderdiko jaiotza tasak: Beheraka goaz atertu gabe

Mila biztanleko kalkulatu da jaiotza tasa. 2008an mila biztanleko 10,2 haur jaio ziren Euskal Herrian. Azkeneko kontaketa, 2020an, 7ra besterik ez da iritsi. Ehuneko %30 gutxiago. Gurean ere bide beretik edo okerrago goaz. Datu orokorrik ez dugu, baina azken urtetako tasak ikusiz, bi urte alderatuko ditugu.

Berria egunkariak dakartza 2014 eta 2020ko jaiotza tasak eta honako hauek izan dira gure alderdian:

UDALERRIA	2014	2020
Anue	10,82	14,55
Atetz	4,59	0
Basaburua	4,59	3,62
Imotz	9,22	9,30
Lantz	13,42	0
Odieta	13,74	0
Ultzama	6,59	8,36

Ikusi dezakezuenez, datuak oso kezkarriak dira. Kezkarriak baino larriagoak esanen genuke. Bagenekien nola genbiltzan, hilabete oro ematen dugu hilen eta jaiotzen berri, eta beti hil gehiago jaio baino. Askoz ere gehiago.

Zer dugu eskas? Porlana dugu gehiegi, teilatu sobera eta bizitza gutxiegi. Zer dugu egiteko? Nola bideratu erorketa larri hau?



EUSKARAZURI DEIKA

EL EUSKERA
TE ESTÁ LLAMANDO

IPARMANK
Nafarroa Iparraldeko
Euskara Mankomunitatea

**IMOTZ-BASABURUAKO
EUSKALTEGIA**

euskara ikastaroak / cursos de euskera

Maila guztiak
Todos los niveles

Ordutegi malguak
Horarios flexibles

**Talde presentzialak /
Autoikaskuntza**
*Grupos presenciales o
Autoaprendizaje*

**DIRU-LAGUNTZAK
BECAS**

948610776 - 699704951
leitza@ikaeuskaltegiak.eus



Ziaurritzen hartu zituzten errefuxiatuak Ukrainara itzuli dira

Hemezortzi errefuxiatu iritsi ziren martxoan, hiru emakume eta hamabost adin txikiko. Hiru emakumeetako bat eta bost adin txikiko apirilean joan ziren eta orain besteak ere Ukrainara itzuli dira.

Europako hainbat herrialdetatik ari dira Ukrainara itzultzen. Apirilean, Giza Aferen Koordinazio Bulegoak, Ukrainako Mugako Guardiaren Zerbitzu Estatalaren datuak hartuta, egunero 30.000 errefuxiatu itzultzen ari zirela esan zuen. Gerra uste zena baino gehiago luzatzen ari dela eta familiarekin bildu nahi dutela dira aipatzen dituzten arrazoi nagusiak, Espainiako hainbat hedabideren arabera. Baita lana bilatzeko dituzten zailtasunak ere. Orain, ikasturte berriarekin gehiago izaten ahal dira, besteak beste, eskola berriz abiatu delako Ukrainan.

Zifra ofizialik ez dago, Nafarroan eta EAEn ere ez, europarren mugimendu askatasunarengatik zaila delako erregistro bat eramatea, baina Euskadi Irratiko Faktorian Xabier Legarreta Eusko Jaurlaritzako

Migrazio eta Asilo zuzendariak azaldu duenez, "jakin badakigu Ukrainara bueltatu diren pertsonak daudela, baina, halaber, Ukrainara bueltatu eta, gerora, euren herrialdean dagoen egoeragatik, Euskadira itzultzeko erabakia hartu dutenak ere".

Ziaurritzen, martxoan, hemezortzi errefuxiatu hartu zituzten. Lorea Peñalver herritarraren ekimena izan zen, hamabost urtez etxean udan hartutako Saxa Kurvanovek laguntza eskatuta. Hiru emakume eta hamabost adin txikiko iritsi ziren: Saxaren ama eta bi auzokide, umeekin. Ondoren, Saxaren ama eta anai-arrebak gelditu ziren Ziaurritzen eta besteak Burgosera bideratu zituen Nafarroako Gobernuak laguntza programak, baina bietako bat Ziaurritzera itzuli zen eta beste ama, bost adin txikikoekin Ukrainara itzuli zen apirilean. Orain, Ziaurritzen ziren bi emakumeak eta hamar umeak itzuli dira beren herrira, Huta-Mezhyhirs'kara, Kieveko iparmendebaldean.



Martxoan Iruñera iritsi zireneko irudia ▲



Izugarrizko arrakasta izan du Anueko eta Lanzko udako kanpusak

Bi taldetan eta bi astetan, lau eta hamabi urte bitarteko ia 50 haur izan dira. Lehenengo taldea uztailaren 26tik 29 bitartean bildu zen, eta bigarrena abuztuaren 1etik 5a bitartean. 25 haur bildu ziren lehenengoan eta 23, bigarrean, Lanzkoak eta Anueko herri guztietakoak. Baita kanpotik etorritakoak ere, uda Anuen pasatzen duten hainbat haurrek, Maite Zubillaga Olague, begiralea: "Bestela egingo ez ziren harremanak egiten dira, aurretik ezagutzen ez ziren umeek elkar ezagutzen dute. Nora eta Teo, adibidez, Italiatik etortzen dira udan (aita Etsaingoa da), ez zuten inor ezagutzen eta orain lagunekin geratzen dira arratsaldeetan eta presondora joaten dira".

Jolasak, kirol jarduerak, eskulanak egiten aritu dira, baina, batez ere, mendi irteerak egin dituzte: "Jolas pila egin dituzte baina batez ere tokiak ezagutzen ibili gara, Olagueko gaztelura, presondora, Burutaingo presa, Aritzura, Etulainera, Anueko hainbat lekutara joan gara, baina Lantzen ere egon gara, askok ez baitzuten ezagutzen".

Olagueko 25 urteko gaztea da Zubillaga, eta Olaguekoa den Joseba Iriarte Larralderi proposatu

zion berarekin begirale aritzea: "Oso-oso gustura ibili naiz; eta, beraiek ere bai".

Helburu nagusia bailarako umeek elkar ezagutzea izan da, eta helburua bete da. Isabel Oiartzun, kontzejuko kidea: "Anueko eguneko bazkarirako 50 ume apuntatu dira! Hori ez zen ohikoa".



▲ Burutaingo presan



TXAKUR JANARIA

CARLOS 660781595
Pili 650206699





Mikel P. Ansa,
Berria

'Oparotasuna'

2022ko abuztuak 26

Oparotasunaren aroa: kanila ireki eta ur txorrota ateratzea; kanila biratu, eta ura bero ateratzea; botoi bat sakatu, eta arropa makina batek garbitzea; etengailuari sakatu eta argia piztea; jakiak hotz kontserbatzea; trepeta bat entxufatu, eta eskuan edukitzea komunikatzeko tresna guztiak. Eta hori baino gehiago: nahi denean nahinora bidaiatzea; hilabeteko oporrak etxetik kanpora. Mundukoizakigutxibatzuentzat mende erdi baino pixka bat gehiago iraun du amets horrek, *oparotasunaren aroak*; beste askorentzat amesgaiztoa izan bada ere. Emmanuel Macron Frantziako presidenteak *oparotasunaren aroa* bukatutzat eman zuen herenegun. Negu gogorra datorrela. Ez du neurri berezirik iragarri; shock dotrinarako prestatzen ari da herritarrak. Alemaniak berriki iragarri du gasaren kontsumoa %15 eta %20 artean murriztu beharko lukeela negua ongi pasatzeko. Eta, horrela, krisi energetiko eta klimatiko betean, Espainiako Gobernuaren energia aurrezteko neurriek ogi papurren tankera dute; nekez lortuko da, balantze orokorrean, gasaren kontsumoa %7 gutxitzea —eta ikusteko dago hori aski izango ote den—. Elektrizitate eta gas kontsumitzaile handiek —industriak eta garraioak— neurri gogorrak hartu beharko lituzkete energia kontsumoa egiaz murrizteko. Baina industria esaten ari da esfortzua egin duela ja, eta ezinezkoa dela gehiago egitea produkzioa jaitsi gabe. Kinka larrian dago sistema osoa, muturreraino behartua. *Oparotasuna* zer den berriro definitzen hasi beharko da.

Kronika osorik,
amezti.eus-en



Urritzola-Galaingo erabilera anitzeko plaza, azkenik, inauguratuta

2019aren amaieran Urritzola-Galaingo erabilera anitzeko plaza eraiki zen. Pandemia iritsi zen eta ezin izan zen bere garaian inauguratu. Horrela, Urritzola-Galaingo kontzejuak uztailaren 30ean jaiegun bat antolatu zuen eraikuntza hori ospatzeko, baita ondoan eraikitako haur-parkea ere, eta horiekin kontzeju honetako biztanle guztien gozamena.

Hala, egun bizia izan zen, ekitaldiz eta ospakizunez betea, eta herriko biztanleek eta bertaratutako bisitari ugariak gozatu zuten egun hartaz. Goizean herri kirol txikiarekin hasi zen, eta 30 txikik baino gehiagok parte hartu zuten. Ondoren, herri kirolak protagonismoa hartu zuen nagusientzat. Bertan bi taldek, Urritzola-Galainek, BRT Menditarrek errugbi taldearen aurka jokatu zuten. Proba ikusgarria eta oso parekatua izan zen, jendeak asko gozatu zuen haiekin. Herri kirola amaitu ondoren, Otsagabiako dantzarien txanda izan zen. Plaza bete batean dantzatu zuten, eta jendeak bertako dantzez gozatu ahal izan zuen.

Goiz bizi baten ondoren, 150 heldu eta 40 haurrekin bazkari herrikoa izan zen, Orioko euskal parrillak prestatu eta zerbitzatutakoa. Bazkalostea Los Andus musika taldeak alaitu zuen eta giroa goraka joan zen. Bazkalostean, frontoiko pilota partidak, bertan ere ikusmina eta giroa zegoen, frontoian bertan jarritako barraren laguntzaz. Jaialdi txiki honetako ohorezko sarea Jose Javier Zabaleta eta losu Eskiroz pilotari profesionalek egin zuten.

Jaialdi honetan Buruzgain klubeko hainbat partida, txikito eta gazte, zaleen arteko apusturen bat eta Oskoz de Almandoz anaien eta Landiribar eta Otxandorenaren arteko partida nagusia jokatu ziren. Partida oso parekatua eta ikusgarria izan zen, zaleen kantuak eraginez. (...)



Iñaki Ezkurra Osakar





Pala txapelketa arrakastatsua, Olaguen

32 bikotek eman zuten izena, 13 nesken kategorian, 19 mutilenean. Harriduraz hartu zuen berria antolakuntzak. Mikel Otondo: "bai, nahiko arrakasta izan du, ez genuen espero horrelakorik". Gehienak ingurukoak dira, baina eskualdetik kanpo ere apuntatu dira batzuk.

Olagueko gazteen artean sortutako ideia izan da Otondok azaldu digunez: "Betidanik palan aritzeko ohitura izan dugu Olaguen, eta orain dela gutxi, elkarrekin geundelarik, hizketan, pala txapelketa egitea bururatu zitzaigun eta martxan jarri genuen".

Abuztuaren 18an hasi zen txapelketa, eta irailera arte luzatuko da, ez dago finalen datarik oraindik.



Olagueko pala txapelketa. ezk.-esk. Olagueko Miren Urrutia, Amaia Iriarte, Leire Perez eta Saioa Freire

Izarpen gustu guztientzako aukerak ditugu EGUNERO!!!

Tfnoa.: 848 68 14 00 - 31867 Aroztegi - ATETZKO IBARRA

Hamarretakoak: Menudikoak, Txerri hankak, Tripakiak, Ajoarriero, Arrautzak....

Bermuta: Etorri gure pintxoz beteriko barraz gozatzeraz eta dastatu gure etxeko frito berriak.

Eguneko Menua: Etxeko janaria egunero.



Merenduak: Txokolate beroa txurroekin, etxeko tartak, bizkotxoak eta pintxoak.

Ostegunero: Pintxo-pote giro oberenean.

Asteburuak:

Asteburuko Menu berezia km·0 eta karta.



IZARPE
ULTZAMAKO ATEA · PUERTA DE ULZAMA





Denok

Bat

Uda oparo amaitu da jubilatuen elkartean

Hainbat txango eder egin dituzte uda honetan, eta beste batzuk dituzte oraindik egiteko. Gainera, ikasturte berrirako kide gehiago bildu nahi dituzte. Hemen duzue Denok Bat jubilatuen elkarteko kronika.

Bazkide berrien bila

Uztailaren 5ean bilera izan genuen herrietako delegatuekin, barne antolakuntzaz eta bazkide berriak egiteko kanpainaz hitz egiteko. Oso interesgarria iruditu zitzaizen guztiei, eta delegatuekin bilera urtero egitea aipatu zen. Gutxienez, aurrerantzean zuzendaritzaren bileren akta jasoko dute delegatuek, zuzendaritza zer asmotan dabilen jakin dezaten.

Kalderete festa

Urte batzuk egin gabe, baina aurten festa berezi hau egiteko aukera izan genuen, Auzako frontoian. Nahiz eta aurretik izena eman beharra izaten den, 17 pertsona gehiago agertu ziren, horrek sortzen dituen arazoekin. Hala ere, denen laguntzarekin eta batez ere Auzako bazkideenarekin, mahaiak, aulkiak, edariak, ontziak eta abar izan genituen denontzat, eta elkarrekin egoteko aukera gozagarria izan genuen.

Hainbesteraino izan zen, urtean bitan egitea ere aipatu zela! Ikusiz joanen gara.

Amaiur

Uztaileko txangoa Amaiur aldera egin genuen, ikusteko hainbat gauza izan genituen. Bi taldetan banatuta ibili ginen. Museoa eta gaztelua ikusi genituen, gidaren laguntzarekin. Amaiurko eta Nafarroako historiako hainbat agerpen eman zizkigun.

Errotan ere egon ginen, irina nola egiten den ikusteko eta irin

horrekin egindako talo bikaina dastatu genuen. Bazkal aurretik Santxotena museoa ikusi genuen. Borda batzuetan banatuta eta soroan zehar dauden eskulturak ikusi genituen bertako gidak lagunduta.

Suerteak eduki genuen, une batean Xabier Santxotena berak ere erakutsi baitzizkigun hark egindako eskulturak, zergatiak eta egin nahiak agertuz. Argigarria bezain txundigarria izan zen.

Gero, bazkal ondoren, taldetxo bat Marmoles Soule ikustera joan zen, etxera itzultzeko autobusa hartu baino lehen.

Huesca

Abuztuko txangoan Huescako Tena bailara ikustera joan ginen. Joan-etorria luze samarra denez goizago mugitu ginen. Jende askok izena eman zuenez bi taldetan banatu ginen, bi tren hartzeko asmotan. Bat Tramacastillatik ateratzen dena, ibon de los Paules ikustera. Pirineoko paraje ederrak benetan!

Beste taldeak Piedrafita de Jacatik ateratzen den trenea hartu zuen, baina suerte txarra eduki zuten! Ateratzear zegoela izorratu zen, eta ezin izan zioten bidaiari ekin. Ordez, batzuk Panticosa ikustera joan ziren autobusez, eta teleferikoan ibiltzeko aukera ere izan zuten; eta besteek paseoa egin zuten herri inguruko ibilbideetatik barna. Bazkaltzerako, denak elkarrekin bildu ginen eta bikain bazkaldu ondoren etxerako bidea hartu genuen.

Bidaia luzeagoak

Hurrengo bidaia Benidorrera izanen da. Urriaren 16an joango dira hamar egun pasatzera izena eman zutenak.

Hurrengo txangoan La Riojako San Millan de la Cogolla ikustera joanen gara, eta izanen duzue horren berri datorren alean. Bitartean osasuntsu egotea opa dizuegu.



Denok Bat
Jubilatuena Elkartea



Amaiurko gaztelua zegoen tokian jarritako monolitoaren inguruan ▲

80. hamarkadan Lizason ostatu hartu zuen komunitate espiritualala

Aldizkari batean zinema kritika bat irakurtzen ari garela, dokumental berezi batekin egin dugu topo: San Simón 62. Irati Gorostidi eta Mirari Echávarri zinemagile nafarren azken lana da, eta Lizason (Ultzama) 80. hamarkadan egon zen Arco Iris komunitateaz hitz egiten duela irakurri dugu. Ez genuen horren berri, eta sorpresa handia eraman dugu... Lizason, garai hartan, komunitate espiritual bat? Zinemagileekin eta Lizasoko herritarrekin elkartu gara, komentu zaharreko eraikinean egon zen esperientzia hartaz gehiago jakiteko.

"Lizasoko herritarrek komunitate hura ongi hartu zutela esanen nuke, orokorrean, ez zela gaizki ikusi. Tira, apaizak bai, hark oso gaizki hartu zuen... Izan ere, komunitateko kideak askotan biluzik ibiltzen ziren, eta horrek guztiz amorratzen zuen apaiza". Josefina Goñi lizasoarra horrela hasi da Arco Iris komunitatea izan zena gogoratzen. Data zehatz-zehatzik ez badago ere, dokumentalgileek 1978tik 1985era bitartean kokatu dute Lizasoko esperientzia. Emilio Fiel guru donostiarra izan zen Lizasoko Arco Iris-en sortzaile nagusia. Zein ziren

bertako bizi estiloko ezaugarri nagusiak? Hazkuntza pertsonala, espiritualitatea, komunitatean bizitzea, harreman afektiboak beste modu batean eraikitzea...

Komentuko eraikin erraldoia alokatu zuen komunitateak urte horietan, eta bertan modu finkoan bizi zirenez gain, antolatzen zituzten ikastaro eta tailerretatik milaka pertsona pasatu ziren. "Bilerak egiten zituzten eta kanpotik ere jende ugari batzen zen, yoga zela, barauak zirela, norberaren autoezagutzarako ikastaroak zirela...", kontatu digu

Ana Gerendiainek. Komentutik hurbil zuten etxea garai hartan Goñik eta Gerendiainek, eta harreman dezente izan zuten komunitateko kideekin. "Esne bila maiz etortzen ziren gure etxera, eta txanbil handi bat eramaten zuten, asko baitziren", gogoratu du Goñik.

Herrian, "laranjaz jantzitako yogiak"

Sinpatiatik eta harriduratik, horrela deitzen omen zieten herritar askok komentuko bizilagunei. Izan ere, arropa eta tunika laranjaz janzten ziren komunitateko kideak, eta garai hartan nahiko ezohikoa zen yoga egitea. "Egia da herritar askok harriduratik bizi zuela haien bizimodua, zeren, pentsa, yoga zer zen ere ez genekien hemen garai hartan! Baina jende jatorra zen



Ana Gerendiain eta Josefina Goñi ama-alabak ▲

“
Ana Gerendiain:
Jende jatorra zen
Arco Irisekoa,
eta herriarekin
errespetuz jokatu
zuten beti ”

tratuan, eta errespetuz jokatu zuten beti. Horregatik, nik uste, batzuetan grazia eragiten zutela herrian, baina ez zegoela haien aurkako jarrerarik”, gehitu dute lizasoarrek.

Komentuko paretak lorez apaindu zituzten kideek, eta barruan ate guztiak kendu zituztela ere kontatzen dute herritarrek, haien topaketetarako espazio ireki zabalak edukitzeko. Eraikinaren kanpoko belardietan, berriz, baratze handia egiten omen zuten: “Baratzean aritzen ziren, eta askotan etortzen zitzaizkidan barazki bakoitza noiz landatu behar zen galdetzera, hemengo klima eta eguraldia ez baitzuten kontrolatzen”, dio Goñik. Gerendiainek, berriz, herriko festetan komunitateak ateak ireki zizkieneko gogoratu du: “Etxez etxeko erronda koperan, komentura gonbidatu gintuzten eta txokolatea prestatu ziguten”, dio.

Iruñea ingurutik jende asko batu zen Lizasora urte horietan, baina baita Euskal Herritik eta estatuko beste zenbait lekutatik ere. Parte-hartzaileen artean jende famatuaren seme-alabak ere bazeudela kontatzen dute lizasoarrek, aberats edo erdi-aberatsen seme-alabak, alegia. “Bai, hijos de papa esaten diogun horietako franko ere baziren, nolabait, haien izaera horri uko

egiten ziotenak”, dio Gerendiainek. Eskualdeko herritarren artean ez omen zuen arrakasta handiegirik izan komunitateak, baina tailer edo prestakuntzaren batean Ultzamarren batek ere hartu omen zuen parte. 1985ean, komunitateko bultzatzaileen artean arazoren bat tarteko, Arco Iris-ek Katalunian zituen beste bi egoitzetara lekualdatu ziren bertako bizilagunak.



Liasoko komentua, Arco Iris-en garaian ▲

“Dokumentalak izan duen harrerak ikerketarekin jarraitzeko eta pelikula luzatzeko gogo piztu digu”

Lizasoko San Simón kaleko 62. zenbakian bizi izandako komunitatearen inguruan dokumentazio lan handia egin dute Irati Gorostidi eta Mirari Echavarri zinemagileek. Dokumentala film laburra da San Simón 62, eta ikus-entzunezkoaren inguruan gehiago jakin nahi izan dugu.



▲ Irati Gorostidi eta Mirari Echevarria zinemagileak, Ikuspuntu jaialdia

Nondik sortu zen proiektu hau, nola izan zenuten zuek Lizasoko Arco Iris komunitatearen berri?

Gurasoen bitartez izan genuen guk komunitatearen berri, haiek bertatik pasatu baitziren bere garaian. Duela urte gutxi hasi ginen galdezka, eta bertako argitalpen eta argazkiak deskubritu genituen. Irudiak ikustean gure jakin-mina piztu zen, eta pelikula egiteko asmoa Ikuspuntu zinema jaialdiaren proposamen bati lotuta etorri zen gero.

Zergatik iruditu zitzaizuen interesgarria historia hura kontatzea, zer du berezia?

Batetik, badago gure gurasoen ibilbidearen eta gure jatorriaren inguruko bilaketa bat. Gainera, bion amak pelikula egin baino hilabete batzuk lehenago hil ziren, eta dolauren prozesuan murgilduta geunden biok filmaketan. Haien gaztarora eta pasarte horretara gerturatzeko modu bat izan zen pelikularen sorkuntza. Bestalde, zentzu zabalagoan,

oso interesgarria iruditzen zaigu garai hartan gizartearen gertatzen ari zena: Diktaduraren ondoren, askapen behar handia zegoen eta gizartea egituratzen zuten agindu eta arau asko auzitan jarri ziren. Arco Iris prozesu horren ondorio gisa uler genezake. Sexualitatea, harreman afektiboak, hazkuntza eta espiritualitatea modu berri eta puskatzaile batean jorratzeko asmoz sortu zen.

Lizason ere izan zarete bertakoen testigantzak eta bizipenak jasotzeko? Zerekin egin duzue topo?

Denetik dago. Alde batetik, bertakoen artean badaude oso gauza arrotz bezala oroitzen dutenak. Bestetik, sinpatiaz gogoratzen dutenak. Adibidez, Gorronzko esne-saltzailea elkarriketatu genuen, berari erosten zioten esnea komunitateko kideek, eta maitagarriki oroitzen ditu. Batzuek distantzia puntu batekin begiratzen zuten komunitatea, baina bazegoen baten bat ikastaroetan izen ematera animatu zena, eta baita bertan zegoen mediku-kontsultara eta dendara gerturatu zena ere.

Pelikula osatzeko dokumentazio lan handia egin behar izan duzue, ezta?

Bai, urteak daramatzagu Arco Irisen inguruan ikertzen eta dokumentatzen. Alde batetik, komunitateak berak argitaratzen zituen liburu eta aldizkariak bildu ditugu, baita prentsan eta telebistan agertutako erreportajeak ere. Bestetik, gure amen eta gertuko lagunen artxibo pertsonalaren parte diren eguneroko eta argazkiekin ere lan egin dugu. Azkenik, pelikulan agertzen diren pertsonen egindako elkarriketak eta Lizaso inguruan

egindako grabaketak ere bilaketa lan horren parte izan dira.

Zer nolako erantzuna izaten ari da pelikula?

Oraingoan, harrera ederra izan du. Iruñeko Ikuspuntu jaialdian estreinatu zen, eta Lizasoko eta komunitatetik pasatako jende asko gerturatu zen. Oso berezia izan zen proiektioa eta ondorengo solasaldia. Horren ondoren, Madrilén ere aurkezteko aukera izan genuen, Documenta Madrilén. Orain arte izan duen harrerak ikerketarekin jarraitzeko gogoia piztu digu eta baita pelikula luzatzekoa ere. Izan ere, jende askok esan digu labur geratzen dela.

“ Gure gurasoen ibilbidearen inguruko bilaketa dago pelikularen atzean ”



▲ Dokumentazio lan handia egin dute dokumentalaren egileek



▲ Komunitateko argitalpenak izan dira iturrietako bat



Burutaingo gazteria pestetan



Larraitnzarko gazteria pestetan



Erasoko pestetako herri krosa



Herri kirolak Berueteko pestetan



Gerendiango pestak adinekoen egoitzan



Aimar eta Lorea, argazkian, pankarta egin zuten



Larraitnzarko herritarrek pestetan



Erasoko gazteria lasterkan. Goitik hasita ezker-eskuin Naiara, June, Urtzi, Naroa, Ilazki eta Maddi.



Tortilla-txapelketako saridunak. Ezker-eskuin Carlos, Lorena eta Pekas



Anueko mus txapelketako irabazleak, Leazkuetarrak



Ezker eskuin Maite, Maika, Josune, Aintzane, Alazne, Amaia, Laura Erasoko pestetan



Larrintzarko pestak



Etxalekuko txikiak, hankapalun ikasten



Oskozko pestak



Ainara Urritza: “Amaiurko 500. urteurrenarekin oso inplikaturik daude bertako herritarrak”

Sei bat urte daramatza Amaiurren bizitzen Erasoko (Imotz) Ainara Urritzak, eta hemen bezala, han ere sortzen diren saltsetan parte hartzen saiatzen da gaztea. Nafarroako Erreinuaren azken gotorleku izan zen Amaiurko batailaren 500. urteurrena gogoratzen ari diren honetan, elkarrikitza egin diogu erasoarrari.

Zer gertatu zen duela 500 urte Amaiurren?

Tira, lehenagotik ere hasia zen Gaztela Nafarroa menperatzen eta okupatzen, baina Amaiurren, duela 500 urte, hainbat Nafarren erresistentzia izan zen. Uztailaren erdialdean gertatu zen guda, eta uztailaren 19an erresistentziako azken ahaleginak egin ondoren, amore eman behar izan zuten eta gaztelarrek Amaiurko gaztelua okupatu eta suntsitu zuten. Haien garaipena izan zen alde batetik, baina ez guztiz, 500 urte beranduago toki berean garai hartako hizkuntza bera mintzatzen jarraitzen dugulako, memoria hori gorde dugulako eta etorkizun bat eraikitzen jarraitzen dugulako.

Nolabizidute Amaiurko herritarrek urteurren hau? Presente dago Amaiurko Gaztelua herrian?

Bai, gazteluarena beti egon da hor. 1922. urtean herritarrek monolitoa altxatu zuten, eta zehazki zer zen ez bazekiten ere, bazekitena zen hor, muino horretan, zerbait gertatu zela. 1931n eraso faxista bat izan zen eta monolitoa suntsitu zuten, eta hor askok sumatu zuten zerbait garrantzitsua zela tarteko, eskuindarrek ezkutatu nahi zutena edo erre egiten ziena. Gerora, 1982an, herritarrek berriz eraiki zuten monolitoa, eta Aranzadi elkarteari eskatu zioten muino horretan zer gertatu zen aztertze. Amaiurko identitatearen parte da gaztelua eta bataila. Aurten, gainera, urteurrenarekin biziki inplikatu da herria, eta antolakuntza maila ikaragarria da.

Urte osoan hamaika ekimen egin dira urteurrenaren bueltan, ezta?

Bai, esparru desberdinetatik hainbat ekitaldi antolatu dira Amaiurren.

Nafarroa Berriz Altxa ekimenak, adibidez, hemen egin zuen ekitaldi politikoa; Ernai antolakundeak ere Gazte Martxan ekitaldi nagusietako bat monolitoan egin zuen; Asisko Urmenetak gertaera hura oinarri hartuta komiki-liburua osatu du; hainbat artistek urteurrena gogoratzeko abestiak eta bideoklipak hemen grabatu dituzte... Euskal Herriaren burujabetzaren aldeko bide horretan jende askok izan du hizpide Amaiur.

“Amaiurko herritarrek beti jakin izan dute muino horretan zerbait gertatu zela”



Ehunka lagun batu ziren abuztuaren 6ko ikuskizunerara Amaiurren (Argazkia, Juan Mari Ondikolena)

Abuztuaren 6an ikuskizun handia izan zen gazteluaren azpiko soroetan, Jon Maia Soria bertsolariak zuzenduta: *Amaiur 2022-2522, Aurkituko gaituzuenoi*.

“Diziplina anitzetako pertsonek hartuko dute parte: musikariak, dantzariak... Zergatik izen hori? Bada, iragana ere presente egonen den arren, orainetik etorkizuna eraikitzea duelako asmo ikuskizunak. Ispilu joko bat dela dio Jon Maiak: iragana, oraina eta etorkizuna islatzen duena.





Irailaren 19an hasiko da denboraldi berria

Esan Erran irratiak denboraldi berria hasiko du irailaren 19an, astelehenarekin. Horrela, Egun Ero magazinak saio berriak hasiko ditu, eta Arrosa Sareko, Naiz irrati eta bestelako irrati euskaldunen saio berriak ere entzungai izanen dira Ultzama aldeko irratiari, 107.9an eta amezti.eus-en.

Ikasturtearekin batera, Esan Erran irratiari ere denboraldi berria hasiko da. Irailaren 19an izanen du kurtsoko lehenengo emisioa Egun Ero magazinak. Aurten ere, goizero 10:00etatik 11:00ak bitartean izanen da, astelehenetik ostegunera. Ordea, ostiraletan, Egun Ero Kantuz saioak inguruko herritarren kanta zerrenda berriak biltzeko asmoa du. Errepikapenak, beti bezala, 13:30ean eta 20:00etan izaten jarraituko dute.

Saio propioaz gain, Esan Erranek 24 orduz emitituko du Arrosa Sareko eta bestelako irrati euskaldunen programazioa jasoz.

Kolaboratzaile berriak

Egun Ero irratsaioa aurrera ateratzeko ezinbestekoa da eskualdeko herritarren kolaborazioa. Eta aurten ere, hogeitik gora lagunak babesa izanen du Esan Erranek. Aurreko urteetako askok errepikatuko dute: Patxi Irurtzun liburuzainak, Ainara Urriaza euskara irakasleak euskal literaturaz hitz egiteko, Txuri Ollok internazionalismoaz, Felix Altxelai euskara teknikariak euskarazko gaiez, Gizarte Zerbitzuak lagunak, Irantzu Perez irakurle sutuak krimen nobelazko gomendioak egiteko, udalerrietako kolaboratzaileak balaraz balaratuko berriak jasotzeko ...

Baina nobedadeak ere izanen ditugu. Iosu Jauregi eta Eneko Lurramendi mexikortxotarrek Mexikoko iraultza kontatu ondoren, Cubakoa ekarriko digute bertako kantak joz. Bestetik, musikaz hitz egiteko Josune Ilundain erasoarria izanen dugu (Pulunpek utzi digun orri honetan aprobetxatuko dugu Iñaki Larrañotzi eskertzeko hiru urteetan egindako lana). Gainera, gai berriak ekarriko ditugu ikasturte honetan: Erripako Bakartxo Iragi orientatzaileak ume eta gaztetxoek izaten dituzten arazoez hitz egingen digu, esate baterako; eta, elikaduraz hitz egiteko aukera ere izanen dugu Laia Llop aizaroztarrekin.

Berritasunez, momentuz, ezin dugu gehiago esan. Baina, beste albiste on bat ere badugu, Feminismoaz hitz egiteko Arrarasko Erruki Ezkurra berreskuratu dugu. Irailaren 19tik aurrera izanen duzue entzuteko aukera!

Gogoratu, Egun Ero 10:00etatik 11:00ak bitartean entzuteko aukera izanen duzue 107.9a sintonizatuz edo nahi duzuenean amezti.eus-en! Eta, baita bestelako irratsaio pila Arrosa Sareko irratiaren eta bestelako irrati euskaldunenak! Piztu Esan Erran!



◀ Amezt.eus-en ere entzun dezakezue Esan Erran



▲ Garazi Zabaleta eta Itziar Perez, esan-errariak



Esan omen zion behin...(5)

Erran men'tzion..., esan ben'tzion...

Eguzkiak erre nahi eta arta jorran.

Garai haietan eozin ordutan joaten yittun jorrá. Bazkalondoan, hiruetan igual, beroik haundinakin.

Gerra aurrian yun, **Jualpitzeneko** Alejandro Aranguren eta Joxe Antonio Gascue jorrá biali. Alejandrok geyenez'e 18 urte izain zittin eta Joxe Antoniok 12 urte, muttikoa goaiñik.

Ixil-ixilik, aitzurrek hartu-ta biek jorrá. Eta Joxe Antonio mutikoa biño buru argikoa, eta hala bota zioken itzaletik Alejandro mutillari.

-Alejandro, Alejandro, ekatxek maizek honia, nik eerki jorratuko'ttik itzalpian.

(Orain nekazalgoan ia inor aritzen ez den honetan, zentzua, naturarekiko zentzu guzia galdu dugunean, beroa eta hotza ere ez dugu ia neurtzen. Iduritzen zaigu gu itzalean egonik, bero handirik gabe, dena egina dagoela: klima aldatzen ari dela, bere handiak gero eta maizago gertatzen

direla... bost axola. Joxe Antoniok zioena esanez iratzarriko zaizkigu halako batean, ironia apurrik gabe.

-Arboladi eta landarediei itzala jarri behar eguzkia sartu artean!

Ez dute pentsatu ere egiten landareak eta arbolak 40 gradutan sufritzen dutenekin. Asko eta asko ihartu egiten dira bero horiekin.

Gazteriari deia.

Manolo Garciak, "El último de la fila" rock musika taldeko sortzaileetakoak, azken aldi honetan bi disko atera ditu, 27 kantu berrirekin.

Eta horren harira, El Paisen egindako elkarrizketako bukaeran ere zart egin du. Zart! Egia ederrak jaurtiz.

Gazteen eginkizunaz

Ura gainezka hasi baino lehenago badut esperantza belaunaldi gazteek iratzarriko direla eta oihuka hasiko direla: "geldi hau, geldi hau". Gazteek beren sakelako telefonoak eta drogak harrika bota beharko dituzte.

Eta berehala egin beharko lukete.

Egin ezazue berehala, gurekin jostaketan ari dira eta, gure bizia izorratzen.

Eginkizun epopeikoa izanen da, behar bada utopia bat, baina hori da behar duguna: gazte jendeak erreakzionatu beharra dauka.

Guri gurasoek beti ongi aholkatzen ziguten. Kontua da, garai hartan gure gurasoek zer zen komeni eta zer ez, oso ongi zekitela. Eta gu umeok ere, gurasoen meneko ginela, eta askotan esaneko ere bai. Eta bagenekiela zertan zebiltzan, bide zuzenetik zebiltzala. Hala izanda ere, okerkeria franko egiten genuen.

Orain, besterik da, dena aldatu da eta hobera egin beharrean ...

Ez zaizu hala dela iruditzen?

Honetan ez gara ibili, ez **omenka** eta ez **amenka**. Ezagutzen ez dudan Manolo Garciak botatakoaz baizik. Manolok esan zuen, esan zuenez!!!





Hiru atorra zituen gizona.

Gizona, sukaldean bere andreari, kexu antzean:

-Ze in bia'ut ator zar-zar ta hautsi honekin? Nola idukitzen nauzu ator bakar batekin?

-Ze esatia'zu? Soñian daukezun zarpallena, bat; iñen dizuten berrie, bi; eta hirugarna itteko, kaikuen dauket azie. Jainkoak man'tzola sortzeko grazie.

-(?)

-Ta kejatu iñen zaa?!

Oharra: Kontu hau nahiko ezaguna da, baina hona ekarri dut Zigandako **Karakoetxeko** Esteban Garbisu zenak kontatua delakoz, Koldo Artola, euskara aztertzaileari 1985ean. Esteban, sortzez, Beorburuko **Aguadenekoa** zen eta ezkontzaz etorri zen Zigandara.

Domingo Kanpaña, Bilintxek hilezkortu zuen (inmortalizatu)

Domingo Kanpaña Donostiako bertsolari bat izan zen, arrasto gutxi utzi duena, baina eskerrak Indalecio Bizkarrondori, **Bilintx** bezala ezagunagoa zaigunari, Kanpañaren berri gureganaino etorri zaigu. Domingo Kanpaña zurgina omen zen eta mando baten kargua omen zuen zurgindegian.

Horrela, egun batez Bilintxek karrikan Domingo Kanpaña zetorrela ziri bertso hau kantatu zion:

Mando baten gañian
Domingo Kanpaña,
ez dioa utsikan
asto orren gaña;
azpian dijoana
mandua da, baña,
gañekua ere bada
azpikua aña:

mando baten gañian
bestia, alajaña!

Ez duzula Bilintx ezagutzen? Bai gizona, bai, "Bein batian Loyolan erromeria zan", "Triste bizi naiz eta", "Juana Bixenta Olabe" eta beste zenbait kantu ere kantatu dituzu Bilintxenak direnak! Oraindik ere Bilintx famatua da bertsolari zaharretan.

Bertsolaria eta poeta erromantikoa izan zen (1831-1876) Donostian jaio eta bigarren karlista gerran granada batek jo eta zauritu ondoren hil zen, nahiz sei hilabete bizitu zen oinaze artean. Haur eta gazte denboran ere istripu larriak izandako gizona zen. Zoritxarrez betea. Hala ere, beste batzuen artean, kantu eta bertso arinak eta umoretsuak ondu zituen. Hori bai, erromantikoak ere bai, batez ere emakumeei buruz.



Txurdan



▲ Bilintx edo Moko. Piko bezalako aurpegia zuelakoz zuen izengoiti hori.

Hiztegia

- **Jorratu:** escardar.
- **Ihartu:** arbola edo landarearen heriotza.
- **Jaurti:** bota.
- **Belaunaldia:** generación.
- **Epopeikoa:** alimalekoa, izugarrizkoa.
- **Utopia:** errealitatea kontuan hartzen ez duen gizartea.
- **Aholkatu:** aconsejar.
- **Esanekoa:** obediente.
- **Zarpaila:** hautsia eta hondatua.
- **Azttertzailea:** investigador.
- **Kaikua:** zurezko ontzi mota bat.
- **Ziri bertsoa:** eztenkada sartzeko bertsoa.
- **Alajaina:** Alajainkoaren ordezkoi leuna!
- **Istripua:** accidente.

Aurten eskualdeko bi gaztek parte hartu dute

Azken bi urteotan ezin izan da Euskarabentura bere ohiko formatuan egin, baina aurtengoan, azkenean, bai: hilabetez Euskal Herriko hamaika txokotako 125 gazte oinez ibili dira, herrialde batetik bestera. Euskararen erabilera bultzatzea bada gazteentzako ekimen honen helburu nagusietako bat, baina ez bakarra. Gure eskualdean, Aizarozko (Basaburua) Unai Kaiet Elizalde Estevezek eta Leazkueko (Anue) June Zabalza Tollarrek parte hartu dute aurtengo edizioan, eta beraiekin elkartu gara gehiago jakiteko.

Ez dute ekimen ibiltarirako izena ematen duten gazte guztiek lortzen bertan parte-hartzea. Izan ere, aukeraketa prozesu bat egiten dute Euskarabenturan bertako parte-hartzaileak erabakitzeke, eta gazteek gai desberdinen inguruko lanak aurkeztu behar dituzte. Elizalde, Luzia Goñiko herriko bertsolari zendu berriaren inguruko lan bat aurkeztu zuen, eta Zabalzak plastikoaren ingurukoa, aurtengo Euskarabenturarako aukeratuen artean suertatu dira horiei esker.

Euskarabentura zehazki zer den galdetuta, honela deskribatu du ekimena Elizalde: "Udaleku moduko bat da euskarabentura, baina bertan parte-hartzeko erakutsi beharra duzu benetan gogoia eta interesa duzula, aukeraketa bat egiten dute. Beraz, hilabeteko udaleku bat da, erabat mugimenduan dagoena: ekimen ibiltaria da, guztira 700 kilometro egin ditugu, horietatik 480 bat oinez". 16 eta 17 urteen bueltako

125 gazte batu dira aurtengo ekimenera. Maule-Lextarren uztailaren 1ean hasi eta Getxon bukatu zen ekimena, uztailaren 31n. "Batez beste 18 bat kilometro egiten genituen oinez, egunean", dio gazteak. Aurten, beroa izan da okerrera, June Zabalza: "Etap batzuk gogorak egin zitzaizkidan. Adibidez, hasierakoak, kristoren beroa egin zuen. Etapa bat bertan behera ere utzi behar izan zuten, beroarengatik".

Oinezko etapak bukatu eta gero, euskalgintzako eta euskal kulturako sortzaile desberdinen bisitak izan dituzte hilabete zehar. Elizalde: "Kike Amonarriz etorri zitzaigun egun batean, beste batean Esne Beltza taldeko abeslaria, baita euskal talde txikien bisitak...". Horrez gain, ekimen ibiltaria herrialde

desberdinetatik pasatzerakoan, aurreko edizioetan parte hartutako herrialde horretako gazteekin topaketak ere izan dituzte, zonalde bakoitzean euskararen egoera eta erabilera ezagutzeko.



June Zabalza Tollar, belauniko bigarrena, ezkerretik hastia ▲

“ **Unai Kaiet Elizalde:**
Euskal Herri
osoko lagunak
egin ditugu
Euskarabenturan ”



Unai Kaiet Elizalde, artxiboko argazki batean ▲



Esperientzia ederra

Ikaragarri gustura ibili dira biak Euskarabenturan. Aizarozko gazteak esperientzia ezin hobea izan dela kontatu digu. "Euskal Herri osoko lagunak egin ditugu, eta ekimenak, gainera, hilabete oso batez euskaraz bizitzeko aukera ematen du, gazte batzuk txip-a aldatzen dute eta handik bueltan lagunekin euskaraz egiteko hautua egiten dute...". Leazkueko June Zabalzarendako bestelako euskalkiak entzutea izugarria izan da: "Euskalkiek beti ikusgura eragin didate, etxean batua egiten baitugu beti. Hitz asko hartu egin ditut eta orain erabiltzen ditut (barreak) baina ez dit molestatzen beste batzuei bezala". Esan digunez, gurasoekin gehiago aritzen da orain euskaraz, eta lagunekin ere gehiago saiatzen da.

Behin Euskarabentura bukatuta, han egindako harremanak mantentzen direla diote, eta abuztu osoa herriz herri ibili dira parte-hartzaileak bateko eta besteko festetan. Adinagatik, Elizalde ezingo du berriz Euskarabenturan izena eman gaztetxo bezala. Bai, ordea, 'xerpa' edo gida moduan. "Udalekuko xerpa guztiak ere oso gazteak izaten dira, eta datorren urterako xerpa moduan joatea pentsatzen ari naiz". Zabalza, urte bat gazteagoa, hurrengoan oraindik ezin izango du parte-hartu, baina aukera izanda ez du bitan pentsatuko: "Datorren udan monitore titulua ateratzen badut, hemendik bi urtetara xerpa laguntzaile moduan eta hemendik hiru urtetara Xerpa moduan joan naiteke, eta dudarik gabe joango nintzateke! Oso ongi pasatu dudalako".



◀ Unai Kayeten proiektua entzuteko eta hari egindako elkarrizketa, Esan Erran irratian

“

June Zabalza:
Dударik gabe
(berriz) joanen
nintzateke!

”



Ekimeneko kideak, Iruñetik pasatzen ▲



Gaizki ari gara

-Bazetorrek ba berriz ere EUSKARALDIA!

-Bai. Bai, bai, bazetorren, baña ez zekiñet ba...

-Zer, orain ere badiagu! Hi beti bezala: kritikoa.

-Beharko dun izan. Gauzak, gutxienez, joan den 22 urtean gaizki ari gaitun egiten. Mende honen hasieratik gutxienez.

-O, o, o! Ez dituk adiskide askorik egiñen!!!!

-Bazekiñet. Adiskideak izateko *haize alde* jarri. Gauzak hola ditun. Baña badakin, haizea erdalduna dun, erabat erdalduna, espāñola erabat... kolonizatuak gauden erraietaraño... jakiña, horren kontra eginez geroz... Ni haizearen kontra jarri naun beti.

-Zerbait konkretuagora, hurbilagora ekarriz kontu hau, hemengo egoerara, hemengo udalak, esaterako, ongi ikusten dituk?

-Ez, ez ditun ongi ari. Ez hemengoak eta ia ez iñongoak. Horretaz luze hitz egin beharko geniken.

-Adibidez? Horrela abstraktuan ez diat ongi ulertzen.

-Adibidez? Adibide asko zeuden. Bat, bat bakarrik esatekotan, batto besterik ez aipatzearren: hik uste dun erdarazko ekintzak, ikastaroak, ikustaldiak finantzatzea ongi dagoela?

-Baña, hartzailea, entzulea, ikuslea, erdalduna baldin bada... ez duk erraza.

-Erraza ez dela? Jartzean zegon, jartzean. Gauzak argi edukitzean. Gure hizkuntza euskara baldin bada, nola finantzatuko dun ba gaztelera? Lehenik ideiak garbi. Gero bidea eginen diñagu, baña lehenik ideiak garbi. Euskal Herrian gauden, euskara dun gure hizkuntza eta euskaraz funtzionatu behar diñagu.

-Aiseago duk esatea!

-Hik hala uste dun? Gehienez bai, baina beste askotan oso erraza. Kasu askotan ia-ia esatea bezain erraza dun egitea. Eman dezagun, gimnasia ematen dela herriar guzientzat. Eman dezagun

10 lagunek ematen dutela izena, horietatik erdiak euskaldunak eta beste erdiak erdaldunak.

-Eta?

-Eta, ba... erdaraz ematen dela. Hor zegon koxka! Euskaldunok euskaraz zerbitzatuak izateko dugun **dretxoa edo eskubidearen** gainera erdaldunen erosotasuna bilatzen dela: *hemen erdaldun asko baitago... denok entendatzeko, erdaraz eginen dugu.*

-Orduan eskubideen gañetik...

-Hori dun, eskubideak hankapean hartu, zaborretara bota, eta erdaldunen erosotasuna babestu.

-Hik argi ikusten duk.

-Bai, bai, argi. Gimnasia emateko hitz asko erabiltzen al ditu irakasleak? Ez, agindu gutxi eta beti errepikakorrak.

-Beraz...

-Hortaz ba, irakasleak agindu horiek euskaraz txukun eta zuzen ematen ikasi beharko din. Zenbat denbora



Aspaldiko manifestazioa, zoritxarrez! Giharra ere atera beharko dugu ba ▲



behar din ikasteko? Hamar minutu?

-Eta ikasleak? Horiek ere gutxienez entendatu beharko ditek ba!

-Jakiña! Eta zenbat denbora behar diten erdaldun horiek agindu apur horiek ulertzeko? Lehenbiziko egunean ez bada, bigarrenetan entendatuko diten.

-Orain hasi nauk ulertzen. Eskubideak beti aitzinetik, dretxoak beti aurretik...

-Hori dun! Hizkuntzaren kontu hau ez dun eroso izan. Eta ez dun inoiz

erosoa izanen, baña ez zegoen beste biderik. Eskubideak defendatzea zegokigun, neska! ESKUBIDEAK!!!!

EUSKARALDIA-tik gimnasiara eta gimnasiatik ESKUBIDEETARA. Eta EUSKARALDIA ez da eskubideez ari. Hor dago koxka, aurpegi irrifartsuz ez goazela inora. Dena dela, nik ere jarriko dut txapa. Ez dakit **Belarriprest** edo **Ahobizi** papera hartuko dudan, baña kritika sakon sakonean dut. Gaur zapia goratzen besterik ez naiz hasi.

1.ko OHARRA: Jakiña, ikastaroetako irakaslea euskaraz ere dakiena izan beharko du. Toki guzietan, lanpostu guzietan, beti gaitasuna erakutsi behar da. Edozeñek ez du irakasle izateko dretxo nire haurrekin! Euskaraz jakin beharko du. Eta ongi gainera!!! Ez dakit ulertzen den!

2. OHARRA: bustidura batzuk sartu ditut, ñ, ll, eta besteren bat. Ez naiz arrazoiak jartzen hasiko. Hori bai, euskaldun zaharrari naturalago egingen zaio.



Txurdan

Zorionak Zorionak !



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com



Ultzamako

liburutegia

Libueruetan aurki daitezkeen altxor txikiak (I)

Ale honetan gure liburuzainak ez dizkigu liburu gomendioak egingo (beno, again zeharka bai). Liburutegira itzuli diren libueruetan aurkitutako bitxikeri batzuk eta horien harira idatzi dituen mikroipuina ekarri dizkigu.

Liburutegi bateko liburuak esku askotatik pasatzen dira eta, askotan, horiek beren aztarnak uzten dituzte, irakurri dituzten pertsonen buruzko pistak ematen dizkigute. Azpimarratutako esaldiak, orbanak edo orri-

markatzaile gisa orrien artean ahaztuta uzten diren objektuak: argazkiak, hegazkin-txartelak, erosketa-zerrendak...

Gure liburutegian altxor txiki hauek agertzen dira noizean behin, eta


noizean behin hemen azalduko ditugu. Eta gure aurkikuntzekin batera, hauek iradoki digutenari buruzko kontakizun txiki bat. Hiru hauekin hasiko gara gaur.

Liburua: **Kolosala izango da (Joseba Sarrionandia)**

Altxorra: **Liburuaren irakurketa eskema**

Mikroipuina: **INOR EZ DA PERFEKTUA**

Nobela hau irakurri ez baduzu eta egunen batean irakurtzeko asmoa baduzu, beharbada hobe duzu haren orrialdeen artean aurkitu dugun altxorra ez ikustea: eskema bat, haren gakoetako batzuk eta pertsonaien ezaugarriak zehazten dituenak. Spoiler bat erabat. Nolanahi ere, badirudi eskema horrek liburuari buruzko guztia kontatzen digula, baina begirada zorrozten badugu, irakurri zuen pertsonari buruzko guztia ere kontatzen digun xehetasun batez ohartzen gara: tipex arrasto bat, azken-aurreko paragrafoan. Tipex arrasto bat zirriborro batean! Zer zentzu du? Irakurlea pertsona ordenatu, zorrotz, arduratsu gisa baino ezin da imajinatu. Edo, beharbada, ez hainbeste, bere eskema ahaztu egin baitzuen eleberriaren orrien artean, liburutegira itzultzean. Inor ez da perfektua.





Liburua: **Begiak itxi eta kitto (Xabier Etxaniz)**

Altxorra: **Traumatologiarako zitazioa**

Mikroipuina: **EZ DAGO MINIK**

Traumatologoarentzako zitazio bat "Begiak itxi eta kitto" izeneko liburu baten orrialdeen artean. Kasualidadea? Ez dut uste. Ez zait bururatzen mina uxatzeko modu hoberik: Begiak itxi eta kitto. Ez dago minik. Begiak ixten ditut eta dena

desagertzen da. Dena pasatuko da. Ez nago hemen. Ez dago minik, esaten du itxarongelan, liburu hau irakurtzen duen bitartean: "Begiak itxi eta kitto".



Liburua: **La Habana para un infante difunto (Guillermo Cabrera infante)**

Altxorra: **Soldaduskatik libratzeko medikuaren txostena**

Mikroipuina: **ZAKUR-EZTULA**

Guillermo Cabrera Infante, eleberrri honen egilea, erretzaile handia izan zen. Beti bere habanoa ahoan. Burgosko mediku auzitegian aztertzen ari ziren errekluta batzuek ere -hala zioten bere artean- asko erretzen zuten. Zigarro bat bestearen atzetik, errekonozimendua pasatu aurretik, doktoreek, zakur-eztulak entzutean, zerbitzurako erabat baztertuko zituztelakoan. Agian nobela honen irakurleak horregatik aukeratu zuen, bere txandaren zain zegoen liburuak berak ere kea bota zezan, bere arnasa hauts zezan, soldaduskatik libra zezan. Cabrera Infantek berak esan zuen: "Erretzeko bizioarekin dudak harremana hitzekin jolasteko bizioari estuki lotuta dago".



Oharra

Irailaren 12tik aurrera liburutegiak ohiko ordutegia berreskuratuko du:

Astelehenetik ostiralera, 16:30etatik 19:30etara.

Ostiral kulturalak irailaren 23an itzuliko dira

 **Patxi Irurzun,**
Ultzamako liburuzaina

Galbariotarenean, aizkorak badu etorkizuna

Beñat Senosiain Bikuñak, Galbariotarena etxeko semeak, Bost urterekin jaso zuen bere lehenengo aizkora, eta zortzi urte zituenetik aritzen da aizkolari, aita eta osabaren bidea jarraituz. Orain hamalau ditu eta Anueko egunean, abuztuaren 6an, debutatu zuen erakustaldian. Etxean egin zuen, Olaguen, lagunez inguratuta eta oso pozik.

Gehiegi pentsatu gabe hasi zen aizkoran Olagueko Beñat Senosiain Bikuña, etxean ikusitakoa jasoz: "Beti ikusi dut aita enborrak prestatzen, eta atentzioa ematen zidan!". Bost urte besterik ez zituela oparitu zion aitak lehenengo aizkora, egun erabiltzen duena baino txikiagoa noski, eta zortzi urterekin hasi zen serio ikasten.

Beñatek bost urterekin jaso zuen bere lehenengo aizkora ▼



Familiatik jasoa

Esan bezala, txikitatik ikusi du aita enborrak prestatzen, izan ere, hogeitaz aritu da aizkoran 46 urteko Aitor Senosiain Artozki, Beñaten aita. Sei, Euskal Herriko lehenengo mailan, eta hamabi Nafarroako lehenengo mailan: "20 urterekin hasi nintzen aizkoran eta beste 20 urte aritu nintzen". Antonio Senosiain anaiak kutsatuta hasi zen.

Duela sei urte utzi zuen Aitorrek aizkora. Hobe esanda, plazatik erretiratu zen, aizkora utzi, ez baitzuen utzi: "Nik utzi eta berak (Beñatek) hartu zuen, beraz enborren artean jarraitzen dugu! Ni gusturago nabil horrela, semea irakasten, ilusio handia egiten dit, eta berari ere asko gustatzen zaio".

Debuta, etxean

Anueko egunean egin zuen hamalau urteko Beñat Senosiainek bere lehenengo erakustaldia. Abuztuaren 6an izan zen, etxean, Olaguen: "Oso-oso gustura aritu nintzen. Jendearen animoak

nabaritu nituen. Egia esanda enborrak ez ziren oso onak, pixka bat bihurriak. Baina denbora aldetik ongi joan zen. 8'20"tan egin nuen".

Bi kanaerdiko egin zituen, eta aita ere, harro: "Denbora ona da hamalau urterekin egiteko. Nik uste dut aizkolari polita dela, baina aitak zer esango du! (barreak) Baina itxuraz eta ikusita nola ateratzen dituen ezpalak eta nola jartzen dituen ebakiak bere adinerako...nik uste dut nahiko ongi egiten duela".

Plazaz plaza, disfrutatuz

Helburua, momentuz, plazaz plaza erakustaldiak egitea da. Beñat Senosiain: "Gero, aurrerago, Nafarroako hirugarren mailako txapelketan aritzea gustatuko litzaidake. Baina hori aitarekin hitz egin beharko dut (barreak). Horretarako indarra hartu behar dut".

Aitari ere galdetu diogu: "Orain erakustaldietan ibiltzen bada oso polita da, eta maila hartzeko balio du. Baina inportanteena disfrutatzea da".



Beñat Senosiain, aita ondoan, entrenatzen. ▲
Atzean Galbariotarena, Olaguen



2022ko ekaina

2022ko ekainean gure alderdian izan diren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

Jaiotzak:

Guk dakigula, ekainean ez zen haurrik sortu.

Ezkontzak:

Guk dakigula, ekainean ez zen ezkontzarik izan.

Heriotzak:

BASABURUA Ihaben

Pedro Munarritz Goñi, **Miltxoneko** nagusia, ekainaren 18an hil zen, 96 urtetan.



▲ Pedro Munarritz

ULTZAMA Arraitz

Juan Esteban Gelbentzu Espelosin, **Martineko** semea, ekainaren 7an hil zen, 62 urtetan.



▲ Esteban Gelbentzu

“ Zuen maitasuna
gelditzen zaiguna ”

Ilarregui

Javier Altuna Artze, **Erramoneko** nagusia, ekainaren 25ean hil zen, 66 urtetan.



▲ Javier Altuna

2022ko uztaila

2022ko uztailan gure alderdian izan diren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

Jaiotzak:

Guk dakigula, ekainean ez zen haurrik sortu.

Ezkontzak:

ANUE Aritzu

Iñaki Mariñelarena Urdaniz eta Noelia Telletxea Senosiain, uztailaren 16an ezkondu ziren. Gizongaia Aritzuko **Luxenekoa** da eta andregaia Olaguekoa.



▲ Iñaki eta Noelia

“Mila zorion ezkonberriei”

ODIETA Gelbentzu

Ion Mariñelarena Beuntza eta Rakel Arraztoa Arretxea, uztailaren 16an ezkondu ziren. Gizongaia Gerendiaingo **Lopenekoa** eta andregaia Gelbentzuko **Arkialdekoa**.

Heriotzak:

BASABURUA Beruete

Juan Lopez Garro, **Iribarneko** semea, uztailaren 14an hil zen, 80 urtetan.



▲ Juanito Lopez

Ihaben

Lucia Munarritz Goñi, **Elizmendiko** etxeakoandrea, uztailaren 25ean hil zen, 94 urtetan.



▲ Lucia Munarritz

ULTZAMA Arraitz

Francisca Perez Iribarren, **Boliñeneko** etxeakoandrea zaharra, uztailaren 5ean hil zen, 92 urtetan.



▲ Francisca Perez

Larraitzar

Francisco Ariztegi Elgorriaga, **Txokolateroren etxeko** nagusia, uztailaren 13an hil zen, 97 urtetan.



▲ Patxitxo Ariztegi

“Zuen maitasuna gelditzen zaiguna”

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com





euskara praktikoa

LA MEJOR COMPAÑÍA PARA APRENDER

EUSKARA

IKASTEKO BIDE LAGUN ONENA



Ultzamako AEK

Maila guztiak · Todos los niveles

Guraso taldea 5/6 ordu astean

EGA azterketa prestatzeko ikastaroa

SAKONTZEN (arauak berrikusi, ohiko akatsak zuzendu...)

Taldea edo autoikaskuntza · Grupo o autoaprendizaje

Mintzakide egitasmoa (Mintzapraktika egiteko taldeak)



Izena eman irailaren 23a baino lehen

Matricularse antes del 23 de septiembre

Informazioa eta izena ematea · Información y matriculación

948 60 47 04 edo 607 622102

larraun@aek.eus

Ultzamako AEK euskaltegia · **Larraitzar**

DIRULAGUNTZAK / BECAS

Iparaldeko Euskara Mankomunitateak diruz lagundutako ikastaroak
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak